

Orain hasiko da benetakoa

Lehen faseko galbahearen ondoren, hamabi selekziok bigarren ligaxkari ekingo diote, bi multzotan banatuta. Bigarren ligaxka hau urtarrilaren 22tik 25era izango da eta bukaeran, multzo bakoitzeko lehen eta bigarren sailkatuek lortuko dute finalerdietara pasatzea.

Ligaxka bakoitza lehen faseko bi multzotako lehen hiru sailkatuak elkartuz osatu da, eta selekzioek lehen fasean aurrera egin duten taldeen aurka lorturiko puntuak mantentzen dituzte.

Lehen multzoan Islandia dago lehen postuan, lau punturekin. Lehen fasean ez zituen aurkari oso gogorrak izan, eta partida guztiak irabazi zituen. Bigarren postuan Espainia eta Frantzia azken txapelduna daude, hiruna punturekin. Bi talde horiek iragan asteazkenean elkarren aurka jokatu eta berdindu zuten. Hungaria da hirugarren, birekin, eta Alemania eta Norvegia esku hutsik pasatu dira. Bi selekzio horiak zail dute aurrera egitea.

Bigarren multzoan, berriz, Danimarka dago lehen postuan, lau punturekin, eta orain arte itxura oso sendoa emanda. Atzetik, hiru talde daude berdinduta, bi punturekin: Argentina, Polonia eta Suedia. Azkenik, Kroazia eta Serbiak puntu bana dute. Kroazia da egungo txapeldunordea, eta oso zail du duela bi urteko bidea errepikatzea.

Selekzio bakoitzak hiru partida jokatu ditu, orain arte jokatu gabeko taldeen aurka eta multzo bakoitzeko norgehiagoka guztiak ordu berean jokatu dira.

Ahora empieza lo bueno

Después de la criba de la primera fase, doce selecciones empiezan a jugar la segunda encuadrados en dos grupos. El primero y segundo de cada grupo se clasificarán para semifinales. Esta segunda fase se jugará entre el 22 y el 25 de enero.

En cada grupo están encuadrados los tres primeros clasificados de dos grupos de la primera fase y las selecciones mantendrán los puntos logrados contra las selecciones clasificadas.

En el primer grupo es líder, con cuatro puntos, Islandia. En la primera fase no ha tenido adversarios difíciles y cuenta los partidos por victorias. En el segundo puesto hay igualdad a tres puntos entre España y Francia, actual campeón. Estas dos selecciones jugaron entre sí el pasado miércoles, terminando el partido en empate. Hungría es tercera con dos puntos. Alemania y Noruega no tienen ningún punto en sus respectivos casilleros, por lo que se antoja complicado que puedan acceder a la siguiente fase.

En el segundo grupo es Dinamarca la que manda con cuatro puntos y dando una muy buena imagen. Por detrás, tres equipos igualados con dos puntos: Argentina, Polonia y Suecia. Por último Croacia y Serbia tienen un solo punto. Los croatas, actuales subcampeones, tienen difícil repetir lo conseguido hace dos años.

Cada selección jugará tres partidos, concreta mente contra aquellos equipos contra los que no se ha enfrentado en la primera fase y los partidos de cada grupo se jugarán a la misma hora.